Bizkaia orekan sakonduz

2024

Parte-hartzaileak

Leartibai Fundazioa




# GARDOTZAKO POLIGONOAREN PLAN INTEGRALA ETA ELKARTEA SORTZEKO SUSTAPENA

JARDUERA EKONOMIKOKO GUNEAK

## Helburua:

Gardotza industrialdean enpresa-asoziazionismoa sustatzea, eta irisgarritasunari, mugikortasunari, jasangarritasunari eta lehiakortasunari dagokienez industrialdearen baldintzak hobetuko dituen Kudeaketa eta Jarduera Plana garatzeko oinarriak ezartzea.

## Azalpena:

Hauek dira ekimenaren jarduerak:

- **Hirigintza Azterketa**: Industrialdeko espazio publiko eta pribatuen azterketa zehatza egiten da, hobetzeko aukerak identifikatzeko.
- **Talde Eragilearen sorrera**: Tokiko 4 enpresek eta Berriatuko Udalak osatutako talde eragilea sortu zen, proiektuaren garapenean buru izateko.
- **Bilerak eta Diagnostikoa**: Bilerak antolatzen dira industrialdeko 23 enpresekin eta Udalarekin, egungo egoera irisgarritasunari, mugikortasunari eta jasangarritasunari dagokienez ebaluatzeko eta hobekuntza-proposamenak sortzeko.
- **Hobekuntza Plan Integrala**: Hobekuntza Plan Integrala definitzen da, eta tartean dauden funtsezko eragileekin alderatzen da, bideragarritasuna eta eraginkortasuna ziurtatzeko.
- **Enpresa Elkartearen prestakuntza**: Industrialdearen lankidetza eta hazkunde jasangarria bultzatuko dituen enpresa elkarte bat sortzeko urratsak egiten hasi dira.

**Parte hartzen duten enpresak**
**1**

**BFAren finantziazioa**
**25.168,92€**